

LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUA

INPOSIZIOA, ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN KOMERTZIALIZAZIOA

Apirilean argitaratu zen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua 7/2007 Legea, testu legal honek Espainiar Estatuko Administrazio Publiko ezberdinetako langileen estatutu-araubideari dagokionez oinarrizko izaera du.

LABek konpartitu nahi duen lehenengo hausnarketa zera da: lege honen irakurketa arinean ez dugu jausi behar, testu honek duen esanahi sakona aztertu behar dugu, eta lizentzia, norberaren arazoengatiko egun eta honelako gaietatik haratago testuak dakarrenaren gaineko azterketa osoa egin behar da; izan ere, testu hau (gainerako edozein lege testuren moduan) **garatu nahi duten administrazio publiko ereduaren lege-euskarria baita**, eta azalekoetatik haratago honen arabera azaldu beharko genuke guztiok gure jarrera.

Behin hau argituta, hainbat eta sakonekoak dira LABek testu/Administrazio eredu honekiko **ezadostasuna** izateko oinarri dituen arrazoiak:

INPOSIZIOA:

- testu hau EAE eta Nafarroako Administrazio Publiko ezberdinetako langileoi ezarriko zaigu berriro ere beronen garapenetik kanpo egon garelarik.
- haratago, testu hau ez da Euskal Herriko Administrazio Publikoak duen egoeratik abiatzen, ez du gure egoera eta errealitatea oinarri izan ezta helburu ere; eta testuaren xedapenen ikuste arin batetik garbi ondorioztatzen da hauxe (esaterako, norberaren arrazoiengatiko lizentzia egunak Estatuan duten lan-jardunaren ikuspuntutik proposatuta egonik gure alorrean interpretazio eta aplikazio arazoak sortarazten dituzte)

KOMERZIALIZAZIOA:

- testu honetan “langileriaren kudeaketa arrazoizko, objektibo, arin eta malgua”, “produktibitate eta eraginkortasun mailaren handitzea”, “bitartekoen erabilpen eraginkorragoa” bezalako esamoldeak azaltzen zaizkigu, berauetatik administrazioa enpresa pribatua balitz bezala kudeatzeko asmoa errez sumatzen da, azken baten, zerbitzu publikoen kalitatea eta herritarrekiko hurbiltasuna baino lehiakortasuna bilatzeko helburua.
- bestalde, burutzen den lanpostuaren ezaugarrien arabera ordaindu beharrean lanpostua betetzen duen subjektuaren/pertsonaren arabera diseinatutako ordainketa politika ezartzen da; hau da, lanpostu bera egin arren langileek ordainsari ezberdinak izango dituzte (gehien ekoizten duena edota dagokion administrazioaren ustez profil pertsonal egokia duena sarituko dute) gaitasunak eta lanaren betetzea baino jarrerak sarituz.
- eskubide sindikalak, negoziazio eta iritzi eskubideak murrizten ditu.
- funtzionario izaeraren aurretik lan kontratupeko izaera indartzen du, eta modu honetan egitura publikoen kaltetan privatizazio politikari ateak gehiago irekitzen zaizkio.

LABek ez du konpartitzen testu honek islatzen duen eredia; eta zentsu honetan berriro ere lan harremanetarako euskal esparrua aldarrikatu beharrean gaude, gure herriak dituen egoera eta beharrei erantzuteko balio izango duen eredu propioa garatu ahal izateko, eta zeregin honetan Euskal Herrian protagonista garen eragileon parte hartze, ekarpen, ikuspuntu eta iritziak jaso ahal izateko.

Baimen eta lizentzia gaietan lege honek dakartzan aurrerapausoak baloratzen ez ditugula pentsa lezake inork, batez ere norberaren bizitza eta lan bizitza bateratzeari dagozkionak; bada, ez da egia, artikulatuak zalantza asko izan arren aurrerapenak badirela aitortzen dugu. Aitzitik, aurrerapauso hauek basoa ezkututzen duten arbolak direla uste dugu, hau da, testuaren atzean islatzen den filosofia orokorra ezkuta dezaketenak, eta gure zeregin eta erantzukizuna arreta lege testu honek sakonean duen esanahira bideratzea dela pentsatzen dugu.

LABek Euskal Herrirako beste administrazio publiko eredia nahi du, norberaren bizitza eta lan bizitza bateragarri egiteko neurriak izateaz gain bere hiritargoari lotua egongo dena, administrazio euskalduna, bere obligazio guztien erantzule eta bermatzaile zuzena izango dena, gardena, eta non langile guztiek lan harreman duina eta baldintza berberak izango dituzten.

ESTATUTO BÁSICO DEL EMPLEADO PÚBLICO

IMPOSICIÓN, Y COMERCIALIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

En abril se publicó la ley 7/2007 - Estatuto Básico del Empleado Público, se trata de un texto legal que posee la condición de básico en cuanto al régimen estatutario de las personas empleadas en las diferentes Administraciones Públicas del Estado Español.

La primera reflexión que LAB quiere compartir es la de que no debemos caer en una lectura frívola del mismo, y debemos realizar un análisis completo de lo que dicho texto supone, y es que más allá de licencias, asuntos particulares y cuestiones similares, este texto (como cualquier otro texto legal) es el **soporte legal del modelo de administración pública** que pretenden desarrollar, y en función de esto debemos posicionarnos.

Dicho esto, son varias e importantísimas las razones por las que LAB debe mostrar su **disconformidad** con dicho texto/modelo de administración pública, y las exponemos a continuación:

IMPOSICIÓN:

- nos encontramos con un texto legal que se va a aplicar al conjunto de personas trabajadoras al servicio de las diferentes Administraciones Públicas de la CAV y de Navarra en cuya elaboración se nos ha vuelto a excluir.
- se trata de un texto legal que no parte de un análisis de la situación de la Administración Pública en Euskal Herria, y que conocido el resultado para nada responde a las necesidades de la misma (de hecho y a modo de ejemplo se plantean unas licencias por asuntos particulares basadas en la jornada estatal que resultan chocantes y generan problemas de interpretación y aplicabilidad en nuestro ámbito)

COMERCIALIZACIÓN:

- en este texto se habla de términos tales como “gestión racional, objetiva, ágil y flexible del personal”, “mayor productividad y eficacia”, “utilización más eficiente de los efectivos” ..., eufemismos de los que se desprende la pretensión de gestionar la administración como si de una empresa privada se tratara, y de buscar más la competitividad que la calidad y cercanía de los servicios públicos a la ciudadanía.
- también se implanta una política retributiva que en lugar de retribuir en función del puesto de trabajo que desarrollas te retribuirá por ser quien eres y potenciará actitudes frente a aptitudes (premiando a quién más produce o a quien tenga un perfil más del gusto de la administración de turno), es decir diferente salario a igual puesto de trabajo.
- recorta derechos sindicales, de negociación y de opinión.
- potencia el contrato laboral frente al funcionarial abriendo de esta forma más aún si cabe las puertas a la privatización de servicios debilitando las estructuras públicas.

LAB no puede compartir el modelo que se oculta detrás de este texto; reclamamos de nuevo la necesidad de un marco de relaciones laborales propio para poder establecer un modelo que realmente dé respuesta a la realidad y a las necesidades de nuestro país, y para poder hacerlo desde aquí y con la participación, aportación, punto de vista y opinión de los agentes protagonistas en Euskal Herria.

Habrà quien piense que no nos paramos a valorar lo que se establece y avanza en materia de permisos, sobre todo de cara a la conciliación de vida laboral y personal; pues bien, no es cierto, de hecho valoramos que aún quedando en el articulado muchas incertidumbres por despejar, en esta cuestión se avanza. Sin embargo lo vemos como el árbol que nos impide ver el bosque utilizado para introducir todo lo que detrás de esta ley se pretende impulsar, y creemos que nuestra labor y nuestra responsabilidad es la de trasladar la atención a lo realmente importante del texto legal.

LAB reclama para Euskal Herria otro modelo de administración pública en la que además de medidas de conciliación laboral y personal, también se recupere el espíritu de una administración euskaldun al servicio de la ciudadanía, responsable de todas sus obligaciones, transparente, y donde todo el personal disfrute de igualdad de condiciones y dignidad en su relación laboral.